

# **PANPIN MAGNETIZATUAK**

## **1. BALOREZKO PROPOSAMENA**

Guk jostailu magnetizatuak saltzen ditugun enpresa bat gara, gaur egun pertsonok gero eta denbora gutxiago daukagu, baina zehazki gurasoek denbora gutxien duten pertsonak dira, horregatik, denbora oso bitxia den zerbait da gurasoentzat, hau da, gure proiektuaren idea, era batean, gurasoen bizitza erraztea da.

Hasteko, esan beharra dago gure produktuak asko errazten duela jostailuak jasotzeko prozesua. Iman erantsiak dituzten jostailuak erabiltzen, batzea askoz ere azkarragoa eta errazagoa izango da, hau da, iman zentral bati esker, jostailuak erakarriko dituzu hauek erraz batzeko.

Oso ohikoa da umeak jostailuak erabili eta gero beraien lo gelatik botata geratzea, normalean hau gertatzen denean eta umeak txikiak direnean, ondoren beraien gurasoek jostailu guztiak batu behar dituzte, lan gogor hori errazteko gure produktua sortu eta landu dugu.

Produktuak asko laguntzen du; izan ere, jostailuak biltzen ditugun bitartean, denbora asko aurrezten dugu, normalean, batzen duzun momentuan, jostailuak lurretik banan. biltzera makurtu behar izaten duzu, zeregin aspergarri eta astuna izanda, baina gure produktuarekin eta imamarekin, biltzeko makurtzea ahaztu dezakezu, imana duen tresna jostailuetara bideratu behar duzu eta bakarrik biltzeko aukera ematen dizu, eta, iman horrekin, zure eskuetaraino ekarriko ditu jostailuak, horrela, haurrek denbora gutxiagoan lurrean botata uzten dituzten jostailuak jasoko dituzte, eta hori haurrei beren jostailuak biltzeko modu erraz, azkar eta dibertigarri bat erakusteko eta pixkanaka beregain bihurtzeko modu bat da.

Gainera, aztertu dugu familiek dituzten arazo oso orokor bat sortzen dela jostailuak biltzeagatik, umeak ikusten dute bere jostailuak biltzea zigor bat modukoa, horregatik umeek ez daukate jostailuak biltzeko gogorik, eta gurasoek ez daukate hauek biltzeko gogorik ezta denborarik, gure jostailua arazo honi amaiera jartzen dio, prozesu oso erraz batean bihurtzen jostailuak biltzea.

Horrez gain, "Panorama Social"-ek kalkulaturako azken kopuruak aditzera ematen digu gaur egun seme-alabarik gabeko 4,4 milioi familia baino ez daudela, hau da, mundu osoko familien % 25ek ez duela seme-alabarik. Datu horrek aditzera ematen digu bikoteen % 75ek seme-alabak dituztela. Hainbat pertsona seme-alabak dituzte, badakigu pertsona batzek baliabide ekonomiko txarrak dituztela, baina era orkor batean familiak erosten dituzte jostailuak bere seme-alabentzako, eta horrek abantaila handia ekarriko luke gure produktua saltzerakoan, familia askok behar baitute.

Azken finean, produktu honen ezaugarririk garrantzitsuena erabilgarritasuna da, hau da, produktu honi esker denbora eta esfortzua aurreztu ditzakezu. Esaten den moduan, denbora urrea da, horregatik gure produktua baliotsua da.

Idea hau berritzailea dela pentstazen dugu hainbat arrazoiengatik. Gaur egun, oso kontuan hartzen dugu hainbat gauza egiten ematen dugun denbora, eta zi gara. Denbora etengabe doa, baliabide oso bitxia da. Haurrak izan gara eta badakigu jostailuak ateratzea zein gutxi kostatzen den jolasten hasteko, baina zenbat kostatzen den biltzea. Magnetizatutako jostailu horiek ideia guztiz berria dira, eta denbora asko aurrezten digute biltzeko orduan. Azken urteotan hainbat jostailu mota ikusi ditugu merkaturatuta. Bakoitzak bere ezaugarriekin bereizten ditu besteengandik. Gure ustez, oso ideia berria izan daiteke haurren merkaturatuta. Gure ustez, ideia hori oso berria da jostailuetan eta eskularruetan imanak erabiltzeagatik, lana asko erraztu dadin. Ez zaigu iruditzen egiteko ideia oso konplexua denik eta, gainera, biztanleriaren zati handi bati lagundu diezaiokeenik. Batez ere, haur txikienen gurasoei eta helduagoei eurei, beren kabuz erabil baitezakete.

Asmakizun honen bidez, haurrei ulertarazi nahi diegu jolasteko prozesua ez dela jolasten hastea eta jostailuak jaso gabe uztea, baizik eta biltzeko prozesua dibertigarria ere izan daitekeela, eta, horrela, haurrak beren gauzak ulertu eta ordenatzen eta dena jasota uzten joango dira. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Hori beste enpresa batzuetako jostailuekin alderatzen badugu, gure produktuak desberdintasuna adieraz dezake. Hori dela eta, gure enpresaren produktua berria da.

Bi iman mota daude: erdiko imana, haurren eraginpean dagoena. baina haurrak jan ez dezan behar bezalako tamaina duena, bestalde, imanak ere jostailuetan daude, hauek atera daitezke eta erdiko imana baino txikiagoak dira; beraz, haurrak ahoan sar dezakeela ondorioztatu ahal dezakegu. Honen ondorioz, gure produktua arriskutsua izan daitekeela hainbat arrazoiengandik ondoriztatzen dugu, beraz badakigu zenbait arazo erakar ditzakeela imanak jatea, eta gure produktua imanak daukanez eta umeentzako bideratuta dagoenez, hauek jatea arazo larri batean bihurtzen da, horregatik, gure produktuetan agertzen diren imanak zapore txar bat edukiko dute, honetarako produktu bat botako dugu dure imanetan.

Produktu hau ez da batere toxikoa izango, baizik eta, kimiko edulkorante bat zaporearekin. Jostailuetan botata, zapore honek umeen arreta baztertuko du mihiarekin ukitzean bezain laster.

Produktuaren erabilera oso erraza da, haurrek jolas bat gehiago balitz bezala erabiltzeko, eta, beraz, beti ez du jaso beharko semearen aitak edo amak.

Imanaren polarizazioa (jostailuak batzeko erabiltzen den aparatua) positiboa izango da. Aldiz, jostailuen imanaren polarizazioa negatiboa izango da, horrela magnetizazioaren efektua lortu ahal dugu. Beste aldetik, imana, aurpegi bat polarizazio negatiboarekin eukiko du, beharrezkoan.